

BALONMANO ASOBAL

## El Bidasoa recibe una invitación para ascender a la Liga Asobal

BILBAO. El Bidasoa-Irun disputó hace ahora poco más de dos meses la final del *play-off* que otorgaba el ascenso a la Liga Asobal, la categoría reina del balonmano estatal. La final se celebró en Artaleku, ante el Ángel Ximenez-Puente Genil, y el Bidasoa-Irun perdió, después de derrotar previamente en la semifinal al Teucro, encuentro al que se llegaba tras haber encadenado 9 triunfos en la competición regular. Si bien, el conjunto andaluz del Ángel Ximenez-Puente Genil resultó vencedor de la citada final, privando al Bidasoa-Irun de ascender a la élite de motu proprio.

Sin embargo, los problemas económicos de varios de los clubes de la Liga Asobal, han abierto las puertas al Bidasoa-Irun. De hecho, la Federación Española de Balonmano se ha puesto en contacto con el club guipuzcoano para ofrecerle una plaza en la categoría reina. Por de pronto, el conjunto vasco, según anunció ayer, trabaja en la tramitación de todos los requisitos impuestos por la Federación Española, y será la próxima semana cuando, en rueda de prensa, el club explicará los detalles de la invitación a todos sus socios, aficionados y medios de comunicación. >K. T.

## FÚTBOL > El Bayern de Múnich de Guardiola busca hoy con la Supercopa su primer título

El Bayern de Múnich de Pep Guardiola buscará hoy su primer título oficial de la temporada en el duelo por la Supercopa de Alemania ante el Borussia Dortmund, el principal rival de los bávaros en los últimos años. La maldición que parecía pesar sobre el Bayern, que perdió cinco partidos seguidos contra el Dortmund entre 2011 y 2012, se rompió en la última final de la Liga de Campeones, cuando los jugadores bávaros se impusieron a los dirigidos por Jürgen Klopp, por 2-1. >EFE

## BOXEO > Mendoza pelea hoy en Alemania por el cinturón de campeón mundial de la IBF

El boxeador de origen colombiano Nacho Mendoza, afincado en Gasteiz desde hace más de una década y actualmente con nacionalidad española, a sus 29 años peleará hoy en Alemania por el cinturón de campeón del mundo de la IBF. Mendoza acude a Cuxhaven con 37 victorias (23 por K.O.), 7 derrotas y 2 nulos. >K. T.

## HERRI KIROLAK > Magunazelaia, de 15 años, busca el reto insólito de alzar 212,5 kilos

La Federación Bizkaina de Herri Kirolak anuncia que este domingo el joven harrijasotzaile de 15 años, Urdax Magunazelaia de Mendiola, acometerá en Gorliz, a partir de las 18.00 horas, el intento de alzar una piedra rectangular de 212,5 kilos, algo que, de lograrlo, sería una gesta insólita a nivel mundial dada la edad del levantador. >K. T.

MOTORRA DAKAR 2014

TXOMIN ARANA  
MOTO GIDARIA

# “Dakar Rallyan dudan lehen helburua itxura ona ematea da”

**Dakar Rallya korrituko du urtarrilean Txomin Arana moto gidari ereñotarrak. Ilusioz baina ardurez ekin dio lehen aldiz beteko duen abentura zirraragarri honi, eta begi bistan izanik, helmugara helduz gero, motorren mailan amaitzen duen lehen euskalduna izango litzatekeela**

IÑIGO ALBERDI

EREÑO. Munduko rallyrik handienaren %80 lasterketaren abiapuntura heldu orduko korritzen omen da, bertara heltzeko oztopoak handiak izaten direlako hasiberrietzat. Txomin Arana Gernika Off Road taldekoen babesean helduko da Hegoameriketako proba famatara, horregatik elkarrizketan Juanjo Bilbao idazkariaren azalpenak ere jasotzea nahi du 27 urteko gidariak.

**Munduko rallyrik handiena korrituko duzu urtarrilean?**

Bai, pozik nago, abentura handia delako eta off road mailan munduan dagoen probarik onena, baina ardura eta beldurra ere sentitzen ditut.

**Zelan sartu zara erronka honetan?**  
Nik 2006tik hona enduro lasterketak korritzen ditut GOR taldearekin eta bertako presidentetarak, Roman Mestraituak, galdetu zidan urtarrilean ea prest egongo nintzen joateko, eta baietz esan nion, bitan pentsatu barik.

**Enduroan esperientzia duzu, baina orientazio probarik ez duzu inoiz korritu.**

Egia esan, Dakar enduro proba bat da, baina ez dauka zerikusirik orain arte korritu izan dudarekin: askoz etapa luzeagoak dira, orientazioa landu behar da... Egingo ditut ikastaro batzuk, eta urriaren 20tik 26ra bitartean, antzerako beste lasterketa bat korrituko dut Marocon, Merzouga rally izenekoa. Arinago ere, abuztuaren Gerard Farrés kataluniarrekin joango gara inguru horretara, izan ere, hango leku zabalak eta markatu gabeko pistak Dakarren izango ditugunaren moduko sentazioa ematen dute.

**Zein izango da zure helburua Dakarrean?**

Lehenengo eta behin, itxura ona ematea, eta gero, helmugara heltzea. Hori lortuz gero, motorrean amaitzen duen lehen euskalduna izango nintzateke. Hortik gora...

**Zein motorrekin korrituko duzu?**  
Orain arte enduroak korritzen ibili izan naizen berberarekin, Gernika Off Road taldearena: Yamaha 450 cc, lau aldikoa. Dena dela, egokitu egin behar da Dakarrak dituen beharrezanetara: gasolina-erentzako tanke handiagoa ipini, suspentsio gogorragoak, balazta handiagoak, nabigazio tresnak, eskapea ere desberdina da...

**Dakarrerako 300 eskaera inguru egon omen dira motorren mailan**



Txomin Arana ereñoarra Dakar Rallyan lehiatuko da datorren urtean. FOTO: I. ALBERDI

**eta aukeratutako 200 inguru arteen zu zaud.**

Taldeko jendeak prestatu du dena: Romanek, Juanjok eta beste batzuek. Nani Roma edota Marc Coma bezalako jendearekin berba egin dute, hainbat Dakar korritu dituztenak, eta horretaz baliatuta prestatu zuten izen emate txostena. Dakar lasterketaren arazoa dirua izaten da beti; esaten dute lasterketaren %80 hasi aurretik lantzen dela, eta oinarrizko aurrekontua 60.000 eurokoa da. Antzaenez, asmoa 100.000 eurora heltzea da, egitura indartzeko.

**Gidariaren proiektua barik, talde baten egitasmoa dela esan daiten.**

Oinarrizkoena gidaria da beti, baina gidari batekin bakarrik ez duzu

behar den moduko txostena prestatzen Dakarrera joan ahal izateko; ezezkoa jasoko duzu. Gidariaren gaitasunaren besteko balioa dauka inguruaren izango duen azpiegiturak. Ez da abiadura lasterketa soil bat, iraupen proba da, eta etaparen

**“Gidariaren gaitasunaren besteko balioa dauka inguru azpiegiturak”**

**“Pozik nago, abentura handia delako, baina ardura eta beldurra ere sentitzen ditut”**

amaieran gidariak ez badauka atsedean hartzeko aukerarik, edo motorra prestatuko dion mekanikarik, ez dauka inolako aukerarik helmugara heltzeko.

**Nor izango duzu laguntzaile Hegoamerikan?**

Gidari batzuen artean karreraren laguntzaile aritzeko enpresa bat kontratatu dugu. Eurek jartzen dituzte kamioi bi eta lau mekaniko zortzi gidarientzako. Esperientzia dute Dakarrean, eta laguntza mekanikoa, lasterketako aholkuak edota lo egiteko azpiegitura ematen dute. Ez goaz oinarrizko mailan ere.

**Alde handia Cyril Despres bezalako gidariek duten aldearekin...**

Baina nire lasterketa nire kontra da. Lan teknikorako ez nuke arazorik izan behar, enduroan aritu eta gero, baina psikologia aldetik ordu asko egin behar dira motor gainean: tarte kronometratua egin aurretik 300 bat kilometro egin behar dira bidetik, probak 700 kilometrokoak dira... Horixe landu behar dute, kontzentratuta joatea denbora luzean. Badakit egun txarrik izango ditudala baina aurre egin beharko diet.

**Behin Dakar korrituta, ez zenuke nahiago Afrikan izan balitz?**

Nahiago dut Hegoamerikan izatea. Lasterketa moduan gogorragoa dela esaten dute, teknikoki zailagoa, baina nabigazio aldetik Afrika zailagoa omen da: dunak eta leku zabalagoak direlako. Eta, gero hor daude ere beste ardura batzuk, arazo politikoak...

## Ereño recibe al Campeonato de Euskadi

Para lucir su condición de futuro piloto del Dakar, Txomin Arana participará hoy en la octava edición de la prueba de motocross que se celebra en su propia localidad natal. La de Ereño es la quinta prueba valedera del Campeonato de Euskadi, por lo que además de vascos, a la cita también acudirán los mejores pilotos del panorama nacional e internacional. Organizada por el club Gernika Off Road, la cita —que está patrocinada por DEIA y contará con 87 pilotos— se llevará a cabo concretamente en el barrio ereñotarra de Gabika y acogerá a todas las categorías: alevín, promesa, elite, veterano y clásicas. Las verificaciones se harán entre las 08.00 y las 10.00 de la mañana, mientras los entrenamientos serán de 10.30 a 12.30 horas. La prueba de motocross en sí se desarrollará entre las 12.30 y las 19.00 horas, con descanso entre las 13.30 y las 15.30 horas. Más de 3.000 euros serán distribuidos en premios entre los diez mejores pilotos de la categoría élite, en la que, tras cuatro pruebas del campeonato vasco, Ekaitz Billalabeitia comanda la clasificación general en MX1; mientras que Iker Arriola hace lo propio en la modalidad de MX2. >I. A.